

«Gure pentsioak defendatzen gabiltza, eta etorkizunekoak»



PATRICIA ÁLVAREZ ETA
JOSE RAMÓN LANDALUCE
Pensionista-elkarteetako
arduradun leiozarrak

hiruka

126. zenbakia

2018ko maiatzaren 17tik 23ra arte

Legez kanpoko perdigoikadak

Ehiztariak adierazi arren horrelakorik gertatzen ez dela eta, gertatzekotan, eurak aurka daudela, ekologistek diote *eskopeteroek* gogoko dutela hegaztiak epez eta ehiza-guneetatik kanpo akabatzea. Batzuetan, babestutako espezieetako aleei tirokatzen diete.



EUSKARALDIA | 4

24 ORDU EUSKARA HUTSEZ GETXON

«24 ordu euskaraz» ekimena egingo dute Getxon maiatzaren 24an, udagoieneko Euskaraldiaren proba-saio modura.

URDULIZKO OSPITALEA | 6

KONTRATAZIO GEHIAGO ALDARRIKATU DUTE

Sindikatuak salatu dute pertsonal falta dagoela ospitalean eta langile gehiago kontratazeko eskatu dute.

TXAKINARTO KONTSUMO-TALDEA | 7

AZOKA AGROEKOLOGIKOA EGINGO DUTE DOMEKAN

Bertoko ekoizleen produktuak kontsumitzeaz gainera, askotariko jarduerak antolatzen ditu taldeak, barbarako irteerak eta azokak.

PLASENTIA DE BUTRON MUSEOA | 10

PLENTZIAREN HISTORIA GOGORA EKARTZEN

Plentziaren iraganaren berri zabaldu gura du Plasentia de Butron museoak, aurtengo hegigarren urteurrena daukala eta.

‘Eskopeteroek’ ez diete hegazti



Tiroz hil zuten irudian ikus daitekeen beltzarga; babestutako espeziea da eta, honenbestez, ezin da ehizatu.

Kasu gehienetan hegaztiak izaten dira legez kanpoko ehiztarien jomuga, Eguzki talde ekologistaren arabera; askotan, babestutako animaliak izaten dira. Baina gehienetan salaketak atzera botatzen dituzte, froga-faltagatik edo egilea ezezaguna izateagatik.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIAK: GAZETTE & HERALD • BFA ►

Urtarrilaren 28an, Barakaldoko bizilagun bat ustekabean harrapatu zuten Sopelako udaltzainek, Arriatera Etorbidean, hegaztien legez kontrako ehizarako aparailuak zeroatzala. Polizia-iturriek adierazi zuten, karioletako baten barruan eraztunik eta dokumentaziorik gabeko kardamiru bat aurkitu zuten; eta poltsa batean, eraztunik gabeko beste txori bat, lumaje berdekoa, hilda. Animalia biak ez daude espezie zinegetikoen katalogoan eta ehizatzea debekatuta dago. Bestalde, lehen aipatutako artikuluen artean, alandrezko hainbat zepo, sare-zatiak, kola freskoz (lika) bustitako plastikoak, hegaztiak erakartzeko alpileta eta loreak, eta txorietzako kaiola bi zeroatzen gizonak.

Horrez gain, ikertuak ez zeukan ehizarako, lehiaketarako edo larreratzeko baimenik. Udaltzainek materiala eta hegaztiak hartu zituzten. Bizirik zegoen animalia Bizkaiko Foru Aldundiko Base Gorriko langileei eman zieten, Fauna Basatia Birgaitzeko Gorrizko Zentrora eroateko, eta poliziaren atestatu

6.000

euroko isunaz zigor daiteke arriskuan dauden espezieak edota babestutako natur guneean ehizatzea. Lizentzia baliogabetuko diote ehiztariari. Berrir eskuratzeko hiru eta bost urte bitarte itxaron beharko du.

2.000

euroko isuna har daiteke ehizakoak ez diren espezieak edo debekatutako lurretan ehizatzeagatik. Lizentzia baliogabetuko diote ehiztariari urtebete eta hiru urte arteko epean.

bat bideratu zen, zeina Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Natural Sailean entregatu zuten, Ingurumen Fiskaltzari emateko, flora, fauna eta etxeko animalien aurkako ustezko delitu bat egiteagatik.

Hala ere, Eguzki talde ekologistaren berbetan, pentsa daiteke Sopelan atxilotutako gizona ez zela ohiko legez kanpoko ehiztaria. Naturazaleek diote eurek bildu dituzten edo biltzeko aukera daukaten datuen arabera, gehienetan tiroz zauritutako hegaztiak topatzen direla: «Ez daukagu zehazterik zenbat kasutan ez diren tirokatutako animaliak hegaztiak izan... Mendian, bazter batean, geratzen dira asko, eta ez gara konturatu ere egiten». Fauna Basatia Sendatzeko Gorrizko Zentroko arduradunek datu ofizialik eman ez duten arren, bertoko iturriek baieztatu dute tiroz zaurituta ailegatzen zaizkien animalia gehienak hegaztiak direla.

ADMINISTRAZIOA ETA EHIZA-ELKARTEAK. Eguzki talde ekologistaren arabera, arlo bi aipatu beharko lirateke legez kanpoko ehizaz berba egiten gabiltzanean: batetik, epez eta zehaztutako eremuetatik kanpo egiten dena; eta bestetik, babestutako espezieak ehizatzea edo tirokatzea. Behin hori ondo zehaztuta, administrazio publikoari dagokionez, «bere jardunbidearen nondik norako osoa jakiterik» ez dagoela kritikatu dute naturazaleek. Eguzkiren arabera, «orokorrean ez dute ekimenik abiatzen eta, kasu batzuetan, esaten dute oso zaila dela zer gertatu den jakitea». Azken horretan talde ekologista bat dator administrazio publikoagaz: «Guk azkeneko hiru urteetan hainbat salaketa aur-

tiei arnasarik hartzen uzten

keztu ditugu Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian, baina normalean epaileak baztertu egiten ditu kasuak, froga-faltagatik edo egilea ezezaguna izateagatik», azaldu dute. Hala ere, ekologisten ustez, «adostasun nabarmena» dago ehiztarien eta administrazioaren artean. «Kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiagaz». Izan ere, Eguzkik dioenez, «azkenean haien esku dago hori gehiago kontrolatzea, eta mugatzea ere bai. Esaterako, ehiza-lerro batean, paseko hegaztientzat prestatutako postuak dauden lekuan, lege-haustea gerta daiteke, babestutako espezie bati tirokatu zaiolako. Aldundiak erabakitzen badu denboraldi horretan eta lerro horretan ez dela gehiago ehizatuko, ziur gaude ehiztariak askoz gehiago arduratuko direla halakorik ez gertatzeaz. Beraiek izaten dira arduratzen lehenengoak, euren artean edozeri tiro egiten dion *eskopeterorik* ez egoteaz». Foru-erakundea, noski, ez dator bat akusazio horregaz. Legez kanpoko ehizaren gaineko datuak eskatu arren, Aldundiak ez du informaziorik eman, baina kontsultatutako iturriek haserre agertu dute akusazioagatik: «Salaketa oso larria da eta horrelakoak egiteko frogak izan behar dira; horrela bada, jo dezatela epaitegiatar», esan dute.

Ehiza-elkarteen kontra ere berba gogorak izan ditu Eguzki talde ekologistak: «Horrelakoak egiten dituztenak gutxi batzuk baino ez direla esaten dute. Horiak ez direla ehiztariak, *eskoopeteroak* direla». Hala ere, elkarrekin zenbat ehiztari dagoen eta zenbat lizentzia dauden esaten dutenean, «zakuan denak» sartzen dituztela aipatu du talde ekologistak. «Ez dira batzuk besteen-gandik bereizten eta ederto babesten dute elkar», salatu dute. Bizkaiko Ehiza Federazioaren arabera, ordea, «ez dago frogarik legez kanpoko ehizarik ematen denik esateko». Gaineratu dute-nez, «horrelakorik gertatzekotan, argi utzi nahi dugu guk ez ditugula holakoak babesten; kontra gaude».

Ehiza-postuak ere adibide legez ipini ditu Eguzkik. Euren berbetan, legezko ehiza-postuak egon badaude: «Zentratuta daude eta baldintzak betetzen dituzte, hau da, postu batetik besterako distantzia egokia da; eta etxeetara eta errepide publikoetara ere bai», azaldu dutenez. Hala ere, beste kasu batzuetan «ezikusiena» egiten ei dute foru-arduradunek. Ekologistek diotenez, «ehiza-postu bat ez da gaur hemen eta bihar han dagoen kotxe bat bezalakoa. Ehiza-denboraldia bukatu artean leku berean egoten da. Gauzak horrela, ez dugu ulertzen zelan ez duten ikusten postu horrek ez dituela arauak betetzen. Askotan postuen arteko distantziak neurtuko dituztela esaten dute. Baina, egiten baldin badute, ez daukagu jakiterik; kontua da postuak leku berean jarraitzen duela».

Bestalde, adostasunaz gainera, «klientelismo» berba ere aipatu du Eguzkik ehiztarien eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko harremana zein den azaltzeko; horren adibidetzat ipini dituzte ehiza-elkarrekin jasotzen dituzten diru-laguntzak.

NEURRI EGOKIAK. Eguzki talde ekologistak argi dauka legez kanpoko ehizagaz amaitzeko neurriak zeintzuk izan beharko lirakeen. Euren ustez, batetik, «benetan jokatu behar duen papera jokatu beharko luke Aldundiak, hau da, jakitun izan behar dugu foru-erakundea dela gure ingurune naturalaren babeslea: lege-ikuspegi batetik, hark dauka gure ingurune naturala zaintzearen eta babestearen ardura; batez ere habitat eta espezie bereziak, babestuak, sentiberenak... Orduan, eskatu behar dena da Aldundiak bere papera jokatzea eta ez kudeaketa-enpresa batena». Ekologisten berbetan, erakundearen jokabidea ez litzateke izan behar «zenbat ehiztari daukat, zelan banatuko ditut...» hausnartzea. «Beraren egitekoa izan beharko litzateke zer inguru natural daukan eta zenbat espezie babestu behar dituen pentsatzea, eta arauak eta erabakiak horren arabera hartzea. Horrek mugatu beharko luke zer eta nola ehiza daitekeen», Eguzkiren ustez. ◀

Ehiztariantzako hainbat arau

Ehizakiak

Ehizatze modukoak dira Eusko Jaurlaritzak onartutako ehiza-espezieen zerrendan agertzen diren animalia basatiak edo abere basatuak. Babestutako espezieak ezin dira ehiza-espezie izan.

Ehiza-lurrak

Ehizarako ez diren lurretan erabat debekatuta dago ehizan aritzea. Foru-erakundeei dagokie lur horiek arautzea. Legez, ez dira ehiza-lurtzat joko faunaren babeslekuak eta debekatutako guneak.

Ehiza-baimena

Ehizan jarduteko baimena beharrezkoa da. Lortzeko 14 urte beteta eduki behar dira, eta Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez ipinitako gaitasun-probak gainditu. Adingabekoek, ehiza-baimena lortzeko, legez ordezkatzeko dituztenen idatzizko baimena beharko dute.

Armak

Edozein arma-motagaz ehizan jardun ahal izateko beharrezkoa da adinez nagusia izatea edo adin nagusiko bategaz joatea; eta dagokion arma-baimena (eta adingabeen kasuan, armak erabiltzeko baimen berezia) eta armaren dokumentazioa edukitzea eta erotea ere bai.

Animalien babeslekuak



Gorlizen dagoen Fauna Basatia Sendatzeko Bizkaiko Zentroa (argazkian) faunaren babeslekutzat dauka Aldundiak. Beraz, ezin da ezelako motatako ehiza-jarduerarik egin han. Segurtasun-guneei dagokienez, eskualdean bi dira: EHUKo Leioako campusean dagoen Arboretum parke botanikoa eta Getxo. Azken horren mugak dira: Kantauri itsasoa (iparraldetik eta mendebaldetik), Sopela eta Berango (ekialdetik), eta Bilbo-Plentzia errepidea, Benantzioko bidegurutzera heldu arte, Azkorriko errepidetik segituz Andra Mariko probalekuraino, eta ezkerrera joz kanposanturaino.

Eguzki: «Ehiza ez da basurde-gainpopulazioarekin amaitzeko modua»

Neguan gero eta ohikoago bilakatu da basurdeak eskualdeko errepideak zeharkatzen ikustea, sare sozialetan zabalduetako argazkietan eta bideoetan. Sasoi horretan, jakien eskasia nabaritzen dutenean, populatutako gunetara hurreratzen dira piztiok. Eguzki talde ekologistak azaldu duenez, kexa asko egoten da basurdeek eta orkatzek eragiten dituzten kalteak direla eta. «Betiko eztabaida pizten da momentu horretan; basurdeek kalteak eragiten dituzten bakoitzean, nekazaritza-mundutik uxaldiak egiteko eskatzen dute, eta Aldundiak baimendu egiten ditu, normalean», deitoratu dute naturazaleek. Gainera, basurdeakaz beste arazo bat egoten da: lehen aipatu legez, askotan errepideak zeharkatzen dituzte, baita trafiko-istripuak eragin ere. «Hori beste arrazoietako bat da foru-erakundeak uxaldiak baimentzeko», ekologistek azaldu dutenez. Hala, basurdeak ehizatzea astean hiru egunetan baimenduta badago, laugarren egun bat ipintzen du administrazioak horretarako. Bestela, adibidez, animalia hori harrapatzeko denboraldia martxoan amaitzen bada, hilabete horretako amaierara arte luzatzen du baimen-pea Bizkaiko Foru Aldundiak.

Eguzkik kritikatu duenez, administrazio-publikoek eurek bultzatu zuten gure mendietan basurdea berriro sartzea, 90eko hamarkadan. «Euren arerio naturala otsoa da, baina inguruan ez dago horrelakorik. Hortaz, normala da gero eta basurde gehiago egotea, eta kopuru handiagoa egonda, nekazaritza-inguruetara jaitsi behar izatea janari bila», diote ekologistek. Ez dute uste ehiza denik modurik egokiena espezie horien populazioa kontrolatzeko: «Urtez urte uxaldiak egiteko baimenak ematen dituzte, luzatu behar badira luzatu egiten dira, eta hala ere basurdeek bere horretan diraute». Eguzkiren iritziz, horrek esan gura du Aldundia praktikan ipintzen dabilen neurria okerra dela. Horretan ere ehiztarien eta erakundeen arteko «adostasuna» nabarmena litzateke talde ekologistarentzat: «Administrazioak ehiztarien beharra dauka basurdeak ehizatzeke eta ehiztariei komeni zaie masifikazio hori egotea, eurek ehizatu ahal izateko eta baimenak edukitzeko».

Ekologistek uste dute, alde batetik, erakunde publikoek ez dutela azterketa sakonik egin benetan zenbat basurde egon daitekeen jakiteko. Bestalde, administrazioak daukan datu gehienak ehiztariak emandakoak ei direla diote: «Ehiztariak harrapatutako edo ikusitako ale-kopuruetan oinarritzen dira». Naturazaleek argi daukate bestelako neurri batzuk hartu beharko lirakeela: «Azterketak egin eta gutxi gorabehera lurraldean zenbat ale egon beharko lirakeen ikusi behar da, hau da, zein izan daitekeen kopuru onargarria. Hortik abiatuta ikusi beharko litzateke zein neurri hartu daitekeen horiek kontrolatzeko; hartu behar baldin badira, noski». Neurri zehatzik aipatu barik, «ikuspegi zientifikora» jo beharko litzatekeela diote. Aldundiak ez du iritzirik eman gai honen gainean.

GETXO | «24 ordu euskaraz» ekimena

Erabileraren eta ezagutzaren arteko aldea murrizteko saioa

Euskaraz 24 ordur jarduteko ekimena egingo dute maiatzaren 24an Getxon, Udalak eta Bizarra Lepoan eta Egizu elkarteek antolatuta. Udagoienean egingo den Euskaraldiaren «proba pilotua» izango da.

ESTI GARCIA CHACON ►

Bai «24 ordu euskaraz» ekimenean bai azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo den Euskaraldian parte hartu gura dutenek Ahobizi, Belarriprest edo Irribizi rolak aukeratuko dituzte. Hots, euskaraz berba egiten duenak, ulertu egiten duenak, edo ulertzen ez baina euskararen aldeko ekimenakaz bat egiten duenak. Rola aukeratuakoa, partaideek horri dagokion txapa jasoko dute. Garazi Lopez de Uralde Egizuko ordezkariak adierazi duenez, «egun horretan normaltasunez arituko gara norberak bizitzeko egindako hau-tua betez: ni, adibidez, Ahobizi izango naiz 24 ordu horietan».

«Euskararen erabileraren gaia herriratzea eta indartzea» lortu gura dute antolatzaileek ekimenagaz. «Erabileraren eta ezagutzaren arteko aldea murriztu nahi dugu».

Ekitaldian parte hartzeko izen-ematea zabalik dago getxoz-tarrak.eus webgunean; bestela, egun jakinetan udalerriko hainbat lekutan egongo diren izen-emate mahaietan fitxa bat bete daiteke. Egun horietan bertaratzeko aukerarik ez dutenentzat izena emateko sare-mapa osatu dute. Hor agertzen diren Getxo-ko saltoki zein bulegoetan ere izen-emate fitxak egongo dira.

EUSKARALDIAREN HAMAIIKAKOA. Euskaraldiaren enbaxadore izateko Getxoko Hamaikakoa eratu dute, hainbat auzo eta adinetako emakume eta gizonek osatuta. Euskararen aktibazioa sustatzeko babes-urratsa ematea erabaki duten herritarrak dira, ingurukoei ekimenaren berri emanez. Lopez de Uraldek adierazi duenez, «modu pertsonalean eta borondatez “Euskaraldia: 11 egun euskaraz” ekimenean parte hartzea erabaki duten pertsonak dira, Ahobizi rolaren bitartez».

EKITALDIAREN EGITARAU. Maiatzaren 23an hasiko da «24 ordu euskaraz» ekimena, 20:00etan, Itzurbaltzeta/Romoko



Getxoko Euskaraldiaren enbaxadoreak izango dira Hamaikakoa osatzen dutenak. © GETXOKO UDALA

Non eman izena?

Maiatzaren 19an, zapatua, Algortako Telletxe eta San Nikolas plazetan egongo dira izena emateko mahaiak, 11:30etik 14:30era. Bestela, getxoztarrak.eus webgunean eta hainbat saltoki edo bulegoetan ere egin daiteke.

Santa Eugenia plazan. Bideoa proiektatuko dute Euskaraldiaren aurpegia izango diren testigantzak jasoz, «Euskararen Magia» ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, eta ekitaldian hasiera emateko bolandera bat botako dute.

Euskararen berbodromoa ere antolatuko dute maiatzaren 24an: 9:00etan eta 11:00etan, Santa Eugenia plazan, eta 19:00etan, Algortako San Nikolas plazan. Hor bertan egingo dute amaiera-ekitaldia, 20:00etan.

Egun horretan *selfieak* egiteko proposamena luzatuko dute, eta 688 653 042 zenbakira bidaliz edo sare sozialetan #Getxo24euskaraz traola erabiliz partekatzeke. Bidalitako *selfieak* ekitaldi amaieran proiektatuko dituzte, Getxoko Hamaikakoa osatzen duten kideetako bik irakurriko duten mezueguz.

Antolatzaileek proposatzen dute 25. orduan ere euskaraz egitea, «hizkuntza-ohituretan pausoak ematen jarraitzeko». Horretarako, Ajuria tabernatik hasita kantu-jira poteoan abiatuko dira Itxar Kantu, Itxas Argia eta Itzurbaltzeta Kantuz taldeko lagunakaz. ◀

Ezagutu gaitzazu!!!

Yes

Areeta
Leioa Berango Sopela

Kalitatea
ERASMUS+

Innovación

Algo lanean

Berrikuntza

Desd. 1993

Algorita

BAI

Out

KIVA

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arenas azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

Garbiketa gunea
Denda eta okindegia
GnG tailerra
Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat!

Getxo eta Berango artean

SOPELA | Protesta feminista Iberre institutuan

Janzkerak, eta hainbat berbak, tira-birak eragin dituzte

Iberreko irakasle baten adierazpenak eta arropa-protokoloa «erasotzat» jo ditu Aistak taldeak. Alde denek konponbidea gura dute, baina aurretik ikastetxeak barkamena eskatzea gura dute feministek.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Larrabasterrako Iberre institutuko irakasleetako baten hainbat adierazpen «desegokitzat» jo eta janzkera-protokoloagaz «desadostasunak» eduki ostean, ikastetxe-ko atarian kazerolada egitea erabaki zuten Aistak So- pelako talde feministako kideek apirilaren 25ean. Diotenez, aspalditik zetorren arazoa. Emakume-kolektibo horren arabera, behin, «harrikoa egiten zuen mutil bat senar ona izan zite- keela» esan omen zuen maisu horrek. Martxoaren 8ko Ema- kumeen Nazioarteko Egunaren inguruan irakasleak esan ei zituenak Aistaken kideen arreta piztu zuen; izan ere, diotenez, ikasleek eurek joan zitzaizkien horren berri ematera. «Hala ere, horrek denak hausnarketa sakon bat behar zuela ondorioz- tatu genuen eta dinamika batzuk prestatu genituen», diote.

Talde feministaren berbetan, hirutan bidali zieten mezu elektronikoa Iberreko arduradunei, baina ez zuten erantzunik jaso. «Aistakeko kide bi ez ezik, hainbat ikasle ere joan ziren zuzendaritzara, ikastetxe-ko arduradunen erantzun bat eska- tuz», gaineratu dutenez. Diotenez, «hilabete eta erdi edo egon ginen horrela». Iberreko zuzendariaren esanetan, ordea, ez zuen eduki aukerarik mezu horiek garaiz irakurtzeko».

KAMISETA ETA PRAKA LABURRAK. Kamiseta barik joateagatik Iberren ikasten duen neska bati irakasleek errieta egin izanak Aistak taldearen pazientzia agortu zuen: «Mutilak kamiseta barik dabilta. Gainera, egun bi geroago zirkularra bidali zuen etxeetara zuzendaritzak: praka eta kamiseta motzegiak ezin zirela eroan irakur zitekeen. Zalantza barik, emakumeoi bu- ruz ari ziren», azaldu du talde feministak. Horrek ere bultzatu zituen kazerolada egitera. «Adierazitakoa guztiz ondo ulertu ez izana» leporatu diete irakasleek eta zuzendaritza-taldeak Aistak kolektiboko kideei. «Orokorrean, ikasleen janzkera dela



Apirilaren 25ean egin zuten protesta Aistak talde feministak Iberre institutuaren aurrean. © AISTAK

Adostasunik ez oraindino

«Genero-bereizkeriak alde batera uzten dituen orientazio akademikoa bermatzen dugu»

IBERRE INSTITUTUKO LANGILEAK

«Arazoak egon direla onartzea eta horiek saihesteko baliabideak ipintzea gura ditugu»

AISTAK SOPELAKO TALDE FEMINISTA

eta, gure arauak jasotzen dute ikasle guztiek janzkera egokia izan behar dutela, bai mutilek, bai neskek», azaldu dutenez. Ikastetxe-ko arduradunen ustez, «desadostasunak elkarriketa- ren bitartez bideratzen dira».

AURRERAPEN HANDIRIK EZ. Alde biak jakitun dira maiatzaren 2an egindako batzarrean ez dutela «aurrerapen handirik egin». Hala ere, ikastetxeak «konpromiso tinkoa» adierazi du «pertsonek garapen osoarekin, generoko eta estereotipoei bu- ruzko rolak alde batera uzteko». Iberreko arduradunek diote- nez, «edozein motatako diskriminazioaren kontra gaude, eta genero-bereizkeriak alde batera uzten dituen orientazio aka- demiko eta profesionala bermatzen dugu gure egunerokotasu- nean». Ez dirudi berba horiek nahikoak direnik Aistak taldea- rentzat. Kolektibo feministak adierazi duenez, «arazoak egon direla onartzea, barkamena eskatzea eta baliabideak ipintzea edo hori gehiago ez pasatzeko formakuntza ematea» eskatzen diete Iberreko arduradunei. ◀

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra Periodontzia
Ortodontzia PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Zientzia-pilulak

**EDUARDO SAN
ANDRES ARANA**
Matematika
irakaslea

Txertoak eta zentzugabeko aurreiritziak

XVIII. mende amaieran, 1796. urtean, nafarrerria gaixotasun hilgarria oztoporik gabe hedatuz zihoan Europan zehar. Urte horretan Edward Jennerrek, Ingalaterrako herri-mediku batek, behaketa bitxia egin zuen: behiak jeztan zituzten baserritarrak ez ziren nafarreriarekin kutsatzen. Behi-nafarrerria mota arin baten sintomak jasaten zituzten, baina arazorik gabe sendatzen ziren, eta giza nafarrerriaren barietate kaltegarria ez zuten harrapatzen, babestuta edo.

Ia mende bat geroago, 1880. urtean, Louis Pasteur kimikari frantziarra kolera-infekzioa ikertzen ari zen oiloengan. Horretarako, bakterio-kultiboak garatu, oiloengan inokulatu eta gaixotasunaren garapena aztertzen zuen. Behin, bere laguntzaileari ahaztu egin zitzaion animaliengan kultibo bat injeztatzea, eta konturatu zenerako bakterioak ahulduta zeuden. Dena dela, oiloak inokulatu zituen. Haiek gaixotasunaren sintomak eduki zituzten baina oso modu arinean, eta immunizatuta geratu ziren. Pasteurrek, Jennerren historia gogoratuz, txertaketaren printzipioa ulertu zuen. Jennerren omenez prozesuari «txertaketa» deitu zion (frantsesez txertoa *vaccin* eta behia *vache*).

Gaur egun ondo ulertzen dugu txertoen printzipioa: organismoan agente patogenoaren lagin ahuldu bat sartzen da, sistema immunologikoak haren kontra borrokatzen ikas dezan. Txerto batek albo-efektuak ditu, jakina, gaixotasuna nolabait eragiten duelako modu arinean. Baina beste gaixotasun bat eragin dezakeela pentsatzea nahiko absurdoa da. Hala ere, nahikoa da Hollywoodeko ospetsuren batek aipatzea meningitisaren txertoak autismoa sortzen duela, milaka gurasok haien seme-alabak ez txertatzea erabakitzeke. Harrigarria eta arriskutsua.

URDULIZ | Alfredo Espinosa ospitalea

Langile-falta salatu dute sindikatuek



Joan den 2016an zabaldu zuten Urdulizko ospitalea, eta zerbitzuak apurka-apurka osotuz doaz. © ESK

Ospitaleak beste sei ebakuntza-gela estreinatuko ditu ekainaren 4an. Bitartean, ordezkaritza sindikalak deitoratu du baliabide materialetan egindako gastua pertsonalean egindako aurrezpenagaz orekatu dela.

IKER RINCON MORENO ▶

Urdulizko Alfredo Espinosa ospitaleko langile-falta salatu eta kontratazio gehiago aldarrikatu du ordezkaritza sindikalak. Joan den astelehenean, hilaren 14an, egin zuten elkarretaratzea, Jon Darpón Osasun sailburua ospitalera bisita egin zuen egun berean. Sindikatuen iritziz, hainbat langile-mota kontratatatu beharko lirake: erizainak, jagoleak, zerbitzuetako langileak, sukalde-beharginak, prebentzio-beharginak, pertsonal-zerbitzuko kideak eta laborategiko langileak.

Urdulizko ospitalearen bloke kirurgikoaren irekieraren berri eman zuen Osasun Sailak astelehenean, eta ordezkaritza sindikalak positibotzat hartu du urrats hori. Hala ere, azpiegitura eta baliabide materialetan egin den gastua «orekatzeko» asmoz kontratazioan egiten ari den «aurrezpena» salatu dute sindikatuek. Deitoratu dutenez, gaur egun badaude lan-karga oso altuak jasaten dituzten zerbitzuak, eta adibide moduan ipini dute larrialdietako: «Boxe-

Lan-kargak
«Gaur egun badira oso lan-karga altuak jasaten dituzten zerbitzuak, eta horrek estresa eta ilusio-galera dakarkie langileei», sindikatuen esanetan.

tan erizain/gaixo eta erizain-laguntzaile/gaixo ratioak oso altuak dira. Bi erizain eta erizain laguntzaile bakar bat dago hemeretzi boxei arre-ta emateko. Alderaketa moduan, Basurtuko erizain bakoitzak 5-6 box ditu bere ardurapean». Azkenik, salatu dute beharginen «behar ez bezalako» dimentsionamenduak, langileen euren osasuna kaltetzeaz gainera, gizarteari ematen zaion kalitatean ere eragina daukala.

SEI EBAKUNTZA-GELA BERRI. Ekainaren 4tik aurrera sei operazio-gela ipiniko dituzte martxan. Hala, laukoiztu egingo da ebakuntzak egiteko aukera Urdulizko ospitalean. Bloke kirurgiko hori asistentziarako zerbitzu orokorren eraikinean kokatuta dago. Denera zortzi operazio-gela dauzka gaixo-etxeak, puntako teknologiaz hornituta eta 2.000 metro koadro hartzen dituztenak.

Osasun Sailak iragarri zuen legez, Urdulizko ospitalea apurka-apurka osotu da, zerbitzu berriak zabaltzen, 2016ko uztailean ireki zutenetik. «Urbe osasun-eskualdeko herritarrentzat ospitale moderno, eroso, eskuragarri eta erreferentziatzeko bilakatu da», Saileko ordezkarien berbetan.

400 PROFESIONAL INGURU LANEAN. Zerbitzu berriak irekitzean beste 112 profesional hasiko dira, hainbat kategoriatakoak (hamazazpi fakultatibo, erizaintzako 39 profesional, erizaintzako 28 laguntzaile, zazpi jagole eta zerbitzuetako 21 langile). ◀

GOTZONE BUTRON · ALEX YGARTUA | Txakinarto taldea

«Inguruko kontsumo-taldeek arteko sarea sortu nahi dugu»

Inguruko ekoizleen produktuak zuzenean kontsumitzeko aukera daukate Txakinarto taldeko kideek. Horrez gainera, askotariko jarduerak antolatzen dituzte hilean behin, berbarako dastaketak eta txangoak.

IKER RINCON MORENO ▶



Plentzia, Gortiz eta inguruko 40 familia inguru daude Txakinarto kontsumo-taldean. HODEI TORRES

Zer da Txakinarto? 2016an sortu genuen kontsumo-talde bat da. Hasieratik gure asmoa izan da inguruko produktu ekologikoak kontsumitzea, baita ekoizleekin zuzeneko harremana edukitzea ere.

Zenbaterik osatzen duzue taldea? Denera, Plentzia, Gortiz eta inguruko 40 familia gaude horretan. Ekoizleak, aldiz, hamabost ditugu, Plentzia, Lemoiz, Fika, Jatabe, Arrieta, Mungia eta ingurukoak. Zitrikoak Málagatik ekartzen ditugu eta Bidezko Merkataritzako produktuak ere badauzkagu orain; horiek ere kanpotik ekartzen ditugu.

Zer-zelako produktuak kontsumitu daitezke taldean? Denetarik: oilaskoa, okela, barazkiak, arrautzak, marmeladak, fruta, zitrikoak, ardoa, garagardoa, esnekiak, gozoak eta ogia, besteak beste. Oinarrizko dena kontsumitzeko aukera dugu.

Zelan funtzionatzen duzue? Bazkide denok dugu konpromisoa barazki-otzara hartzeko. Ekoizleekiko konfiantza osoa dugu, baina eurek ere jakin behar dute zenbat produzitu behar duten. Horrek laguntzen die euren antolatzeak. Aldiz, gainontzeko produktu denekin bakoitzak nahi duenean egin dezake eskaera. Astean behin egiten dugu produktu freskoen banaketa, eta

Maiatzaren 20an azoka agroekologikoa egingo dute Plentziako Erribera kalean, 11:00etatik 15:00etara.

gainontzekoak hilean behin. Banaketa Plentziako hiltagi zahar-arean egiten dugu, udal-aretoa da eta.

Produktuak kontsumitzeaz gainera beste hainbat jarduerak egiten dituzue, ezta? Hilean behin produktu berrien dastaketak egiten saiatzen gara, eta hurrengo hilabetean txangoak egiten ditugu, ekoizleak eta euren produkzioak bertatik bertara ezagutzeko. Gainera, inguruko beste hainbat kontsumo-talderekin harreman-sare bat egiten saiatzen ari gara orain.

Zelan parte har daiteke taldean? Gurekin zuzenean harremanetan jarrita nahikoa litzateke. Konpromisoa izatea beharrezkoa da, den-dena denon artean antolatzen dugu eta.

Domekan, hilaren 20an, azoka agroekologikoa egingo duzue... Bai, bigarren edizioa izango da aurtengoa. Oraingoan Erribera kalean egingo dugu azoka, eta hamabost ekoizle joango dira. Bestalde, irratsaioa egingo dugu aurten, hainbat esperientziaren berri emateko uhinen bitartez. Gainera, Crazy Jazzers jazz-taldeak kontzertu ibiltaria eskainiko du, 11:15ean eta 13:00etan. Azkenik, umeentzako mandala-tailerra eta pintxo-lehiaketa egingo ditugu. Inguruko bederatzi tabernak parte hartuko dute. ◀

11. EGUN EUSKARAZ

ERANDIO EUSKARALDIA

AURKEZPENAK

- ERANDIOGOIKOA**
Gizarte-Etxea
Maiatzak 25, ostirala
19:00
- ALTZAGA**
HAPO (PGOU) GELA (UDALETXEA)
Maiatzak 23, asteazkena
Derioko esperientzia
19:00
- ASTRABUDUA**
JOSU MURUETA (GELA URDINA)
Aurrago esperientzia
Maiatzak 30, asteazkena
19:00

berbotoz

E!

Bizkaia

ROBIKAST

ROBOTIKA HEZIGARRIA

Ikaspenak sormenaz eraikitzen

Tailerrak
Irakaslekoarentzat formakuntza
Eskolaz kanpoko ekintzak
Maila guztietara egokituta
Aholkularitza

material guztia gure esku

RoBotiKa
pRograMazioa
3D inPriMaketa
eleKtroniKa

Email: info@robotikast.eus
Telefonoa: 688 637 331

www.robotikast.eus

«Artaziak sartu dituzte, gure pent

Pentsiodunek hobekuntzak lor ditzaten urteak daroatzate beharrean Patricia Álvarez Rueda (Zaragoza, 1958) eta Jose Ramón Landaluze González (Caracas, 1954) leioaztarrek. Etorkizuneko pentsioak ere jokoan daudela diote.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Zer eskatzen duzue pentsiodunok? PATRICIA ÁLVAREZ: Duintasunez bizi ahal izatea gura dugu, eta horretarako pentsio egokiak eskatzen gabilta; gaur egungo pentsioakaz, pentsiodun askok, batez ere emakumeok, ezin dute duintasunez bizi, ez zaielako dirua hilabete amaieraraino heltzen. Gauza askori uko egin behar diote jan ahal izateko. Horregatik, Europako Karta Sozialak gomendatzen duen 1.080 euroko gutxieneko pentsioa aldarrikatzen dugu, besteak beste.

JOSÉ RAMÓN LANDALUCE: Eskatzen dugu pentsioen igoeira Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera izatea. Gaur egun dagoen formula magikoa da: beti ematen du %0,25. Uler dezakegu kontuak ondo joanez gero KPI igotzea, eta ondo ez doazenean, uler dezakegu bestelakorik. Baina orain kontuak ondo doazenean guri %0,25 bakarrik igotzeak ez dauka logika handirik. Bestalde, gura dugu iraunkortasun-faktorea muga barik atzeratzea edo desager dadin, pentsiodun berrientzat kolpe handia delako. 2019an zen indarrean sartzekoa iraunkortasun-faktorea, eta 2023ra atzeratu da. Diru-sarrera beragaz gura dute jende-kopuru bikoitza ordaintzea, hori da euren helburua. Gu ez gaude batere ados. Txirotu nahi gintuzten, eta daborduko txiroak gara; pentsiodun berriak hasieratik pobreak izan daitezten bilatzen dute. Eta ez dugu hori gertatzetik gura. Hala, gurea eta etorkizunekoena defendatzen dugu. Kontu gehiago ere bada, berbarako, Espainiako Konstituzioaren 50. artikulua.

Zertan datza artikulua hori? J.R.L.: Argi eta garbi dio pentsiodunek eta jubilatuek bizitza duina izan behar dutela diru-sarrera egokien bidez. Estatuko aurrekontuak prestatzean, artikulua hori alboratu egiten dute; bete beharreko konstituzio-artikuluak dira boterean dauden politikoei gura dituztenak baino ez dira. Horregatik, guk diogu Konstituzio horretan pentsioak blindatu beharra dagoela, bermatuta egon daitezen. Toledoko Itunean hitzartu zena mantentzea nahi dugu, boterean dagoena dagoela. Itun horrek batzorde bat dauka pentsioen gaia lantzeko, Celia Villalobos batzordeburu daukana. Nagusien kolektiboak (hamar milioi baino gehiago gara) ez badauka kontsultarako ordezkaritza Toledoko Itunean, txarto goaz. Batzorde horretan errespetua erakutsi beharko liokete pentsiodunen kolektiboari.

Ez zaudete bertan? J.R.L.: Gaur dagoen kontu bakarra da ordezkaritza bat Espainiako Pertsona Nagusien Kontseiluaren alde, baina ordezkaritza bi daukate eta zorte onagaz, urtean behin galdetzen diete zer edo zer. Gure ustez ordezkaritza iraunkorra beharko genuke, eztabaida denetan egoteko. Proposamenak badaukagu eta musu-truk emango genizkieke. Zergatik ez digute galdetzen? Ideiak emateko prest gaude pentsioek aurrera egiten segi dezaten, eta sistema iraunkorra izan dadin. Baina haiek gura dutena gero eta gutxiago ematea da, etengabe.

Zeintzuk dira pentsiodunok daukazuen gabeziarik nabarmenenak? P.A.: Krisiak gehien kaltetu duen pentsiodunen multzoa da emakumeena, eta horien artean, alargunena. Euren



Álvarez Bizkaiko Pentsionistak Martxan elkartearen kidea



© ECUADOR ETXEA

Kalera ateratzen segitzea eskatu dute

Patricia Álvarezek eta José Ramón Landalucek argi daukate kalean presioa eginez lor daitezkeela hobekuntzak, gaur egungo pentsiodunentzat eta etorkizunekoentzat. Horrenbestez, astelehenetako elkarretaratzeakaz segituko dute Erandion, Getxon, Leioan, Sopelan... Halere, bat datoz hitzordurik garrantzitsua maiatzaren 26ko Bilboko manifestazioa izango dela. Jesusen Bihotzetik aterako dira, 18:00etan; protesta jendetsua izatea gura dute, hainbat belaunaldi bilduko dituen. Horregatik, kolektibo denak gonbidatu dituzte: beharginak, langabetuak, gazteak, mugimendu feminista eta abar.

etxeetan behar egin dute, eta bikotekideek eduki duten pentsioaren %52 besterik ez diete ematen: 300-400 euro. Hala, batzuek bizi-baldintza penagarriak dauzkate. Egia da Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru hori osatzen duela, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagaz (DSBE). Baina denek ezin dute DSBE kobratu. Berbarako, etxean hartu behar izan badute diru-sarrera ziztrinen bat daukan seme-alabaren bat, galtzen dute aukera hori. Pentsionistak Martxanentzat, eta niretzat ere, emakume alargunen kontua mingarria da oso.

J.R.L.: Alargunen kontua aurretik iragarrita zegoen, baina orain berretsi dute aurtengo aurrekontuetarako proposamenean, behingoz onar dadin. Lehenengo fasean alargunek kobratuko dutena %56ra igoko da, eta datorren urtean %60ra. Dena den, gure ustean emakume alargunek gizonezkoek dauzkaten eskubide berberak eduki behar dituzte. Beste aldetik dago pentsio txikienak behetik berdintzearena. Famatu egin da hemen 1.080 euroen mezua, Europako Karta Sozialetik datorrena. Gu, Nagusiak elkartearen, *zentzudunagoak* gara eta proposatzen dugu momentuz kontribuzio-pentsio txikienak behetik berdintzea. Etxekoandreen kasua da larria, berbarako: inoiz ez dute ordaindu gizarte-segurantzaren etxea mantentzen zutelako, senarrak lan egin ahal izan zezan. Ez litzateke bidezkoa andre horiek bazterrean uztea, orain egiten den legez.

Behetik berdintzea esaten duzunean, zer esan gura duzu?

J.R.L.: Gu kontribuzio-pentsioengatik hasiko ginatke: lanbide arteko gutxieneko soldata, orain 735,90 euroan dagoena. Hor-

Pentsioak apurka-apurka murrizteko»



o presidentea da; Landaluce, oster, Nagusiak elkarteko batzarkidea. HODEI TORRES

tik aurrera, igoera batzuk egingo genituzke, hainbat urtean, Europako Karta Sozialak dioenera heldu arte, 1.080 euro horiek. Baina ez bat-batean, badakigulako gaur egun sistemak arazoak dauzkala kotizatzen denagaz pentsioak ordaintzeko. Lan handia dago hori aldatu eta iraunkor egiteko.

Zelan heldu gara egoera honetara? P.A.: Apurka-apurka egin dituzten murrizketengatik. 2011tik artaziak erabili dituzte gure pentsioetan, KPIak kentzen, pentsioak izozten edo %0,25eko igoerakaz. Azken urteotan erosteko ahalmena galdu dugu, modu nabarmenean.

J.R.L.: Horretaz gainera, kontu asko dago, gobernuak argitu ez dutena, sistemaren egituraren bertan. PSOE boteretik atera zenean, Pentsioen Erreserba-funtsean 66.815 milioi euro zeuden. Gaur egun ez dago ezer: sartzen dena gastatu egiten da; hilabete normaletan soberakin bat geratzen da, baina aparteko ordainsariak heltzen direnean soberakina agortu egiten da eta zenbaki gorriak geratzen dira [formalki, 8.095 milioi geratzen dira funtsean, baina Gizarte Segurantzak 10.120 milioi zor dizkio Estatuari]. Zer gertatu da 66.815 milioiakaz? Gaur egungo Gobernuak gastatu dituela, sistemaren defizita estaltzen eta Estatu espainiarreko altxor-bonuak erosten, besteak beste. Bonu horiek eskasak dira, hutsaren hurrengo interesa ematen dutelako [2016an, Gizarte Segurantzak -%0,236ko interes negatiboa ematen zuten bonuak erosi zituen]. Bestalde, kontuan hartu beharra dago Gizarte Segurantzako beharginei Gizarte Segurantzak ordaintzen diela, pentsioen dirutik. Ho-

Pentsioen sistema ulertzeko gakoak

Toledoko Ituna

Espainiako Diputatuen Kongresuak 1995eko apirilaren 6an onartu zuen Gizarte Segurantzako sistemaren arazo estrukturalak eta balizko erreformak aztertzea, CiUk proposatuta. Erreserba-funtsa sortzea, kotizazio-oinarriak homogeneizatzea, kontribuzio-pentsioak aurrekontuetara bideratzea eta iruzurraren aurkako neurriak gogortzea ekarri zuen, besteak beste.

Erreserba-funtsa

Toledoko Itunean sortutako tresna bat da. Garai ekonomiko onenetan kotizazioen soberakinak merkatu ofizialeko funtsa publikoetan inbertitzea aurreikusi zuen, tartean Espainiako altxor-bonuetan, krisi ekonomikoko garaietan erabiltzeko. Urte batzuetan %4ko etekina eman zuen; gaur egun, oster, dirua galdu egiten du bonu horiekaz.

Iraunkortasun-faktorea

Rodríguez Zapatero sozialistaren Gobernuak 2011n onartutako tresna da, pentsioen diru-kopurua bizi-itxaropenagaz lotzeko. Hala, zenbat eta handiagoa izan bizi-itxaropena, orduan eta txikiagoa litzateke pentsioa. 2027an ipintzekoa zen, baina PPK 2019ra aurreratu zuen. Orain, EAjren eta PPren arteko hitzarmenak atzeratu du berriro, 2023ra. Bost urtero neurtuko litzateke ekuazioa eta koizientea pentsio bakoitzari behin aplikatuko litzaioke, kobratzen hastean.

PPren legeak

Pentsioen arauak nabarmen aldatu zituen Mariano Rajoyren Gobernuak ere, 2012an eta 2013an. Alde batetik, jubilatzeke adina atzeratu zuen 65 urtetik 67ra eta pentsio osoa lortzeko kotizatutako urte-kopurua handitu zuen 35etik 37ra; kasu bietan prozesu mailakatua 2027an amaituko da. Beste aldetik, iraunkortasun-faktorea aurreratu zuen, eta aldatu egin zuen pentsioak eguneratzeko metodoa.

Pentsioak eguneratzeko indize berria

PPk 2013an onartutako metodo berrian, inflazioak utzi zion erreferentzia izateari. Horren ordez, handik aurrera formulak kontuan hartuko zituen sistemaren sarrerak eta irteerak, pentsiodunen kopurua eta batez besteko prestazioa. Gainera, muga bi ipini ziren: behetik, gutxieneko %0,25eko igoera; eta goitik, KPI gehi %0,50eko igoera, gehien jota.

riek ez dira beste funtzionarioak legez, Estatuko aurrekontu orokorretatik kobratzen dutenak.

Zer eragina daukate behargin horien soldatek? J.R.L.: Pasatuko balira urteko 2.200 bat milioi horiek Estatuko aurrekontuetara eta pentsioetatik aterako ez balira, aparteko sari bat ordain liteke ia; gainera, modu horretan jakingo genuke zein den kotizazioen eta ordainketen arteko benetako defizita. Baina kontu gehiago ere badago.

Zein beste kontu? J.R.L.: Berbarako, enplegua bultzatzeko laguntzak; langileen eta autonomoen gizarte segurantzaren deskontuak aplikatzen dizkiete enpresei; nekazaritza- eta arrantzasektoreei hobariak ematen dizkiete. Hala, horiek ez dute behar luketen diru dena sartzen Gizarte Segurantzaren eta pentsioak diru hori barik geratzen dira. Ondo deritzot Gobernuak enplegua laguntzeari baina diru hori Aurrekontu Orokorretatik atera dadila eta Estatuak sar dezala Gizarte Segurantzako kontuetan. Zergatik konpondu behar ditugu pentsiodunok herrialdeak gaur egun dauzkan arazoak? Horretarako Gobernuak dago. Puntu horiek denak argi daudenean, orduan berba egin genezake Gizarte Segurantzaren defizitaz; bitartean, gezurretan dabiltza. Borondate politikoa balego, puntu horiek denak aspaldi konponduta egongo ziren, baina hemen dena da traba eta iluntasuna.

Zer irizten diozue EAjren eta PPren arteko hitzarmenari? P.A.: Egungo ogia, biharko gosea. Urte birako akordioa delako eta 600-700 euro kobratzen duen pentsiodunei 6-7 euro igoko dietelako, bakarrik. Horrek ez die ezer konponduko eta 2020an berdin egongo gara. Bestalde, badago iraunkortasun-faktorea, 2023ra arte atzeratu dutena; mantendu dute, eta, beraz, 2023tik aurrera sartuko diren pentsiodun berriek guk baino pentsio ziztrinagoak edukiko dituzte.

J.R.L.: Nire ustean, epe motzean, ondo dago, sektore batzuek etekina aterako diotelako. Ea eztabaidatu ostean aurrekontuetan onartzen den. Baina ez da ematen duen beste. Kontu batzuk aurretik hitzartuta zeuden, nahiz eta oraindino indarrean ez egon. Garrantzitsua da orain %1,6 igotzea, eta datorren urtean KPI. Pozgarria da. Baina urte bi besterik ez dira, ez dakiugu gerora zer etorriko den. Pauso bat da, negoziatzen segitu eta akordioetara heltzeko.

Pentsioak nondik kudeatzea gurago duzue? J.R.L.: Gu horretan ez gara sartzen, hori gure ustean kontu politikoa da. Pentsio-sistema publiko eta duina eskatzen dugu eta horretarako borrokatzen dugu. Hasieratik, manifestazioak bandera eta ikur politiko barik egitea defendatu du Nagusiak elkarteak, denok batera irten eta lan egin ahal izateko, begiratu barik nor doan. Ez dugu gura pentsiodunakaz Maiatzaren Lehenean legez gertatzea, hau da, bakoitza bere aldetik joatea eta ezinikusiak direla eta ezin batera lan egitea.

P.A.: Gure ustean, pentsioak hemen kudeatu beharra dago. Hemen bizi gara, hemen egin dugu lan eta gura dugu hemen kobratu eta gure pentsioak hemendik kudea ditzaten eta defenda ditzagun. Gizarte Segurantzako sistema publiko propioa aldarrikatzen dugu, hemen ekoiztu duguna hemen bizi garenontzat onuragarria izan dadin. Begiratu bestela Madrilen zer gertatu den: pentsioen lapikoan zegoena bankuei laguntzen gastatu dute hango gobernuak. Horren aurrean, beharrezkoa da daukagun egoera irauliko duen aldaketa bat ematea, maila sozialean, ekonomikoan eta kudeaketa-arloan. Beraz, sistemaren kudeaketa hobetzeko, eta gaur egungo eta etorkizuneko pentsioak defendatu eta bermatzeko, uste dugu behar-beharrezkoa dela kudeaketa hemen izatea. ◀

ARANTXA RENTERIA BILBAO | Plasentia de Butron Museoa

«Gero eta dohaintza gehiago egiten digu jendeak»

UNAI BREA • KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Hogei urte bete ditu Plentziako Plasentia de Butron museoak, eta urteurren biribil horretaz berba egin digu bertako fundazioko presidenteak, Arantxa Renteria Bilbaok. Besteak beste, Plentziak itsasoagaz daukan eta eduki duen lotura estua herritarrei gogoraraztearen garrantzia azpimarratu du Renteriak.

Zelan sortu zen museoaren sortzeko ideia? 1998an bururatu zitzaizen hainbat pertsonari, batez ere itsasoagaz lotutakoak, marinel ohiak, erretiratutako kapitainak... Museoaren sortu zuten itsasgizonen bizimoduagaz zerikusia zeukaten agiriak eta objektuak gordetzeko, bestela euren trasteleketan galduko zirenen eta. Udalak gaur egun museoaren dagoen Erdi Aroko dorrea utzi zuen, eta museoaren bera fundazio pribatu modura jaio zen.

Zeintzuk dira museoaren helburuak? Herriko eta eskualdeko historia gordetzea eta bertoko zein kanpokoei ezagutaraztea, bai itsasoarekiko harremanari dagokionez bai orokorrean ere.

Asko hazi da museoaren hogeiei urteotan? Batez ere, jendeak emandako objektuei dagokienez. Bisita-kopurua, oster, gutxi gorabehera berdintsu mantendu da denbora honetan guztian. Konturatu egin gara azken boladan jendeak gero eta joera handiagoa daukala etxean daukan antzinako objektuak dohaintzan emateko: kapitainen izendapenak, bitakora-koadernoak, maketak, nabigazio-kartak... Gero eta pertsona gehiagok aitortzen dute historia gordetzeko egiten dugun lana, eta objektuak ematen dizkigute, bai aldi aterako utziz, bai dohaintza eginez.

Zein da museoaren pieza kutuna? Gaitza da esatea. Gauzarik zaharrena erromatarren garaiko txanpon bat da. Oso garrantzitsuak eta ikusgarriak dira, baita ere, sarreran dauzkagun



Arantxa Renteria, *Príncipe de Asturias* lurruntziaren maketaren alboan. Plentzian egin zuten maketa, 1941ean. HODEI TORRES

1562

urtean altxatu zuten Plasentia de Butron museoaren dagoen dorrea. Herriko eraikin zibil zaharrena da, eta gaur arte iraun duen Erdi Aroko hiriguneko azken aztarna, elizagaz eta Santiago Arkuagaz batera.

1.100

objektu inguru dauzka gordeta museoak. «Leku falta da gure arazoak», dio Arantxa Renteriak, «eraikinak mugatzen gaitu eta. Dena gordetzeko modua bilatzen gabiltza, aldi berean erakusteari utzi barik».

aingura biak, Muriolako kalan berreskuratutakoak, Plentziako badiaren XV. eta XVIII. mendeetakoak dira, hurrenez hurren. Orain gutxi *Príncipe de Asturias* lurruntziaren maketa eskuratu dugu. Oso handia da, ederra, xehetasun handiz egindakoa. 2016an bete ziren ehun urte ontzi hura hondoratu zenetik.

Zelan ospatuko duzue museoaren hogeigarren urteurrena?

Batetik, urtero egiten dugun aldi baterako erakusketa Plentziaren historiari eskaini diogu aurren; gutxienez abendura arte egongo da ikusbide. Plentziar guztiok eduki dugun ideia da herriaren historia 1299an hiribildua fundatu baino apur bat lehenago hasi zela; okerreko uste hori aldatzeko, erakusketak historia osoa jasoko du, bertoko lehenengo biztanleengandik hasita. Aztarnategi ugari dago inguruan, behe-paleolitokoak, adituen esanetan garrantzi handiko objektuak dauzkatenak. Bestetik, erakusketaz gain, uztailan kalera aterako gura dugu museoaren umeentzat batez ere.

Zenbateko garrantzia dauka museoaren hurrengo belaunaldiari iraganaren berri emateko?

Handia. Plentziara bizitzera etorritzen den jendeak ez daki, berbarako, Ontziola plazak izen hori daukala hori ontziola egon zelako; Udaletxeko plaza esaten diote. Historiari eutsi behar zaio, kale eta plazek zer edo zerengatik dauzkate dauzkaten izenak. Plentzia ontzigintza- eta nabigazio-gune garrantzitsua izan da, eta horri esker herriaren izena eza-gutu da hemendik urrun. Horren memoria gorde behar da. ◀



BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolen ikastola

Kaleko artisten erakusleioa



Antzerkia

Maiatzak 19, zapatua

Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako

11:30 | Azebarri kulturunea (Algorta) | Getxo

Azebarri kultur elkarteak antolatuta. 6 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

El caso de la señora estupenda

19:00 | Antzokia | Berango

Antzerki Amateurraren Jaialdia. Derioko Sutondoan taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 4 euro.

Ergela

20:00 | Azebarri kulturunea (Algorta) | Getxo

Azebarri kultur elkarteak antolatuta. 6 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera: 2 euro.

¡Hoy, milagro!

20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Atakados Teatro antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

Maiatzak 23, eguaztena

Munduko ipuinak

18:00 | Altzagako liburutegia | Erandio

Ines Bengoagaz. 5 urtetik gorakoentzat.

Berbaldiak

Maiatzak 22, martitzena

Irakurle Kluba

19:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Pio Barojaren *La busca* liburua aukeratu dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

LEIOA | Umore Azoka Maiatzaren 17tik 20ra arte ehun emanaldi baino gehiago egingo dituzte Euskal Herriko zein beste herrialde batzuetako 40 kaleko artista-taldek, Leioako Umore Azokaren 19. edizioan. Antzerkia, dantza eta zirku garaikidea izango dira ardatz nagusiak, baina magiarako, umorerako eta su-ikusbizunetarako ere lekua egongo da. Egun horietan, Umore Azokara hurreratuko direnek erabateko hamahiru estreinaldi ikusi ahal izango dituzte, Estatu-mailako lau estreinaldi eta «kaleko» beste lau. Euskal Herriko 21 taldek parte hartuko dute.

Bertsolariak

Maiatzak 20, domeka

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren kanporaketa

17:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Galder Bilbao *Txapi* leioztarragaz eta Paule Ixiar Loizaga sopeloztarragaz batera, Beñat Bilbao, Eneko Barruetabeña, Imanol Arrutia eta Julen Erezuma bertsolariek jardungo dute. Euskaraz. Sarrera: 3 euro, 16 urtez azpikoek doan.

Erakusketak

Maiatzaren 22tik 31ra arte

Astrabuduko antzinako argazkiak

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Koyote ezizenagaz ezaguna den astrabuduarrek antolatu du. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Maiatzak 19, zapatua

Euskal dantzak

19:00 | Astrabuduko Mendiguren plaza | Erandio

Trabudu Dantzari taldeagaz. Pintxo-potea ere egongo da. Parte-hartzea libre.

Maiatzak 22, martitzena

Conoce tu cámara

19:30-21:00 | Atxutegi, 15 | Erandio

Astrabuduko Fotoclubagaz. Gaztelaniaz. Doan.

Jardunaldiak

Maiatzaren 19tik 24ra

Jardunaldi Botanikoak

Algorta | Getxo

Algortako Basozaleak elkarteak antolatuta. Besteak beste, landareak biltzeko txangoa, erakusketa botanikoa eta berbaldiak egongo dira. Informazio gehiago: www.basozaleak.com

Musika

Maiatzak 17, eguna

Rudy Mental (rock)

20:00 | Jolas Aurre taberna (Algorta) | Getxo

Getxon Zuzenean kontzertu-zirkuitua. Doan.

Maiatzak 18, barikua

Bateria-entzunaldia

19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Erandioko Musika Eskolako ikasleakaz. Doan.

Maiatzak 19, zapatua

Binilo Gaud

20:00 | Hator taberna (Algorta) | Getxo

Blue Boss Sounds taldeak eta Elordi DJak joko dute. Sarrera, doan.

Maiatzak 20, domeka

Inprobisazio-saioa

19:30 | El Comercio taberna (Areeta) | Getxo

Areetako musika-eskolako jazz-taldeagaz. Doan.

Txangoak

Maiatzak 20, domeka

Argazki-irteera

08:00 | Astrabuduko taxi-geltokia | Erandio

Astrabuduko Fotoclub elkarteagaz. Loreen argazkiak egingo dituzte. Parte-hartzea libre.

Zinema

Maiatzak 20, domeka

Ardiak eta otsoak

18:00 | Antzokia | Berango

Animazio-filma umeentzat. Euskaraz. Doan.

Printze txikia

18:00 | Kurtzio kultur etxea | Sopela

Danontzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Maiatzak 22, martitzena

The disaster artist

20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo Zineforuma. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

Erdi Aroko Azoka

Maiatzak 18-Maiatzak 20

Moreaga parkea (Berango)



Maiatzak 18, barikua

Jardunaldi osoan zehar, antzerkia, musika eta bestelako ikuskizunak.

17:00 Azoka zabaltzeko kalejira.

17:00 Umeentzako jardueren eta eszenarioaren (ipuin-kontalariak, txotxongiloak, malabaristak...) irekiera, antzerkia Confusión taldeagaz eta Pedrit Onewheel orkestra-gizona. Horrez gainera, ogibideei eta falkoneriari buruzko tailerrak egongo dira.

17:30 Hegazti harraparien erakusketa.

18:00 Maya juglarea eta Karina dantzaria.

19:30 Txotxongiloak: *Los cuentos del gato soñador*.

20:30 Kalejira: itsasoetako erregina eta arrain urdina.

Maiatzak 19, zapatua

Egun osoan zehar, antzerkia, musika eta umeentzako jarduerak.

10:45 Kalejira Sabino Aranatik Moreagara.

11:00 Azokaren irekiera.

12:00 Kalejira: Natura Ama eta Iratxo Berdea.

13:00 Ipuin-kontalaria eta txotxongiloak, Eulaligaz.

17:00 Kalejira: tximeleta erraldoia.

19:00 Antzerkia: *El hombre orquesta*.

20:30 Txotxongiloak: dragoia eta dantzaria.

22:00 Sua, musika eta antzerkia uztartzen dituen ikuskizuna.

Maiatzak 20, domeka

Egun osoan zehar, antzerkia, musika eta umeentzako jarduerak.

11:00 Kalejira eta antzerkia.

12:00 Kalejira: *Juglareando en colores*.

17:00 Kalejira: hezitzailea eta dragoia.

19:30 Txotxongiloak: *Travesuras de los elementos*.

20:30 Musika-ikusizun ibiltaria.

21:00 Tailerren itxiera.

21:30 Antzeztutako kalejira musikala.

22:00 Azokaren itxiera.

Ekitaldi gehiago: www.berango.net

maiatzak 24

EUSKARAZ ELKARTZEKO GUNEA

MAIATZAK 24, osteguna

9:00 + 11:00: Santa Eugenia Plaza

19:00: San Nikolas Plaza

IZENA EMATEKO:

www.egizu.eus/berbodromoa

SASKIBALOIA | Udako campusak

Olgatzea eta prestatzea, aukeran

Leioa eta Getxo saskibaloit-taldeek zabaldu dute udako campusetarako izen-ematea. Ekainaren 25etik 29ra izango da Leioan; ekainaren 25etik uztailaren 27ra bost txanda antolatu dituzte Itzubaltzeta/Romon.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Zorioneko daude bai Leioa eta Getxo udalerrietako neska-mutilak, bai saskibaloit-denboraldi osoa laburra iruditu zaienak, baita ere beste barik kirol horregaz gozatzen dutenak. Izan ere, euren kirol gogokenaz disfrutatzen hasi ahal izango dute uda, Leioa eta Getxo saskibaloit-taldeek antolatutako campusetan. Leioaztarrek ekainaren 25etik 29ra edukiko dute saskibaloit-topaketa, Txomin Aresti ikastetxean eta Kandelazubieta kiroldegian. Klub getxoztarrek, ostera, campusa egingo du Itzubaltzeta/Romoko Gobela kiroldegian eta Romo ikastetxean. Topaketa bost txandatan banatu dute getxoztarrek: ekainaren 25etik 29ra eta uztailaren 2tik 6ra, 9tik 13ra, 16tik 20ra eta 23tik 27ra.

Leioako campusean parte hartu ahal izango dute 2004 eta 2012 urteen bitartean jaiotako neska-mutil denek; ez da beharrezkoa aurretik talderen batean jokatu izana edo saskibaloit-ezagupenik edukitzea. Ikasi eta olgatu gura duenak edukiko du campusera joateko aukera. Itzubaltzeta/Romon ere 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek edukiko dute lekua. Gune bietan jagole tituludun eta eskarmentudunek bideratu ko dituzte saioak.

TEKNIKA ETA OLGATZEA, BATERA. Campusetan, saskibaloitaren teknika eta taktika irakastea izango da eduki nagusia, ume eta gazteen adin eta behar ezberdinak errespetatuta. Halere, bestelako jarduerak ere egingo dituzte, berbarako igerilekura edo txangoetara joan, entrenatu edo jolasetan eta tailerretan jardutea. Campus bien ordutegiak ezberdinak dira: Leioan goizeko eta arrastiko saioak banatuta egongo dira, eta Itzubaltzeta/Romon, ostera, segidan izango dira ordu denak. Halere, bietan aukeran egongo da campusean bazkaltzea. Leioan zein Itzubaltzeta/Romon hamaiketako osasungarria eta hainbat material eskainiko diete parte-hartzaileei.

Campusek prezio bat baino gehiago daukate, honako aldagai hauen arabera: umea bazkaltzen geratuko den ala ez; campus berean neba-arrebaren batek izena eman duen; eta



Leioan, udan ez ezik Gabonetan eta Aste Santuan ere antolatzen ohi dituzte saskibaloit-campusak. © LEIOA SASKIBALOIT TALDEA

Harremanetan ipintzeko

Leioa Saskibaloit Taldea

- leioasbt@gmail.com
- 616 717 510 (Txus Gómez)
- 653 724 052 (Igor Urreta)

Getxo Saskibaloit Taldea

- admin@kiroletansport.info
- 657 773 523 / 946 085 933

umea Getxo Saskibaloit Taldeko kidea den edo umearen ikastetxeak akordioa daukan ala ez Leioa Saskibaloit Taldeagaz. Azken kasu horretan, hitzartutako zentroak dira Txomin Aresti, Betiko ikastola, San Bartolome, Artatza eta Irlandesas. Hala, Leioan preziorik merkeena 90 eurokoa da, eta garestiena 205 eurokoa. Getxo Saskibaloit Taldeak antolatutakoan, berriz, prezio orokorra 120 eurokoa da txandako, bazkari barik, edo 170ekoa bazkariagaz. Aipatutako kasuetan zenbait deskontu aplikatuko ditu klubak.

Inskripzioei dagokienez, klubek ez dute epemugarik jakinarazi, baina kontuan hartu beharra dago leku-kopurua mugatua dela. Leioaztarren kasuan, klubaren webgunean eman daiteke izena; getxoztarrek ere online egin dezakete izapide hori, baina Kiroletan Sport enpresaren atarian. Kasu bietan, izen-ematea osatzeko diru-sarrera egin beharra dago. ◀



nire aitaren etxea defendatuko dut

ERROMON
1977. ETIK

**GURE
ETXEA**
taberna

Caja de Ahorros, 14 | Romo-Getxo | T. 94 463 68 80

f Gure Etxea Taberna | @EtxeaGure

SAIOA AGIRRE ELORDUI | Gimnasta algortarra

«Ahalegin apurra kenduta beste dena ederra da»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Saioa Agirre Elordui algortarrak Euskadiko gimnasia erritmikoko txapela lortu zuen joan den maiatzaren 5ean, Gasteizen. Sakoneta klubeko kidea Lehenengo Mailako sailkapenean nagusitu zen, zintako ariketari esker.

Zelakoa izan zen Euskadiko Banakako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa? Egia esanda, ez zen nire txapelketarik onena izan. Zenbait huts egin nuen ez nintzen oso gustura gelditu, baina txapeldun sailkatu nintzen. Pozgarria da hori.

Zugaz batera Sakonetako beste taldekide batzuk ere lehiatu ziren. Bai. Maddi Otaolak txapelketa oso ona egin eta Euskadiko txapeldun izatea lortu zuen, bere mailan. Arrate Martínezek ez zuen hainbesteko zortea eduki eta ez zen sailkatu Espainiako Txapelketarako, baina zintagaz Euskadiko txapela jantzi zuen; hori, zoritxarrez ez zitzaion balio izan Espainiara jauzia emateko. Alde horretatik apur bat tristeza izan zen eguna.

Datorren aste-akabuan erronka bikoitza daukazu: Iberdrola Ligaren bigarren jardunaldia, Valentzian, eta Euskadiko Taldekako Txapelketa, etxean, Leioan. Valentziara joango gara Maddi Otaola, Izaro Martín, gu baino gazteagoa dena, eta hirurok. Horri begira gabiltza, ondo baino hobeto prestatzen eta entrenatzen. Espero dugu txapelketa nahiko ona egitea. Baina azkenean horrelakoetan edozer gerta daiteke; ez nintzateke aurreratu gura. Dena ondo bidean, goiko aldean egon gaitezke. Bestalde, Euskadikoan ez dut parte hartuko. Dena den, Sakonetan baditugu hiruzpalau talde. Ea Espainiako Txapelketarako sailkatzea lortzen duten!

Ekainean, berriz, Guadalajaran izango zarete Espainiako Txapelketan? Bai, hori da denboraldi osoko helburu nagusia. Lehenengo, txapelketa horretara joateko sailkatu behar dugu, Euskadiko Txapelketan. Behin hori eginda, helburu nagusia



Zortzi urte zeuzkala hasi zen Agirre gimnasia erritmikoan. HODEI TORRES

Lehia-kirola eta ikasketak, batera

Agirrek azaldu duenez, Batxilergoko azken azterketa prestatzen dabil egunotan, eta datorren hilabetean selektibitatea egitea egokituko zaio. Hala, lehiaketa-kirola eta ikasketak bateratzea zail egin zaio: «Egia esanda, hau da orain arteko nire urterik zailena». Beti ibili da «apur bat estututa» azterketa-garaietan, baina aurten inoiz baino gehiago konturatu da horrelako urte bat oso gogorra dela: «Gauz ikasten ibili naiz, ohean, gaua ondo sartuta dagoenean». Batzuetan entrenamenduetan ere igarri izan du hori, ezin zuelako erritmo berdinean entrenatu, gorputzak ez zuelako berdinean erantzuten. Halere, baikorra da: «Kostatzen zait, baina ondo ateratzen ditut ikasketak».

betetzeko unea heldu da. Urte osoan gabiltza lanean hori prestatzen; hortaz, ea ondo doan!

Getxoko kirolaririk onena izan zara birritan. Lehenengo al-dian ez nuen sinetsi, beste kirolariek goi-mailako txapelketetan parte hartu eta irabazita zeuzkatelako. Gainera, 2015ean ni gazteagoa nintzen eta ez nuen espero saririk inolaz ere. Baina birritan lortzea ere... Hori egundoko ezustekoa eta poza izan zen! Oso eskertuta nago Getxoko Udalagaz.

Algortarra izan arren, Leioan entrenatzen duzu. Fadurako kiroldegian hasi nintzen, baina han ez zegoen klubik, eta ez zuten txapelketetan parte hartzen. Hala, Faduran esan zidaten gaitasunak nituela, trebea nintzela, eta txapelketetara joateko prest egon nintzekeela handik pare bat urtera. Gomendatu zidaten Leioako Sakoneta klubera joatea; han proba batzuk egin zizkidaten eta esan zidaten prest nengoela. Hor geratu nintzen eta ibilbidea oso polita izan da momentuz.

Zer aholkatuko zenieke gimnasian interesa duten neska-mutilei? Probatzeko, ea gustukoa duten. Gimnasiak eta kirolak oro har ematen dituzte balio batzuk, eguneroko kontuetara eroan daitezkeenak. Gainera, lagunak egiten dituzu. Eta zorte apur batez joan zaitezke ez dakit nora txapelketa bat egitera. Umeak gustukoa badu, aurrera. Ahalegin apurra egin beharra dago, baina beste dena ederra da. ◀

EKITALDI BAT ANTOLATZEN DUZU?

Photocall

Pop up

Roll up

Banderola

%15 DESKONTUA

Sartu gure webean
www.cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

GETXO | Ibar Nagusien Etxea

Lekualdatzearen kontrako itxialdia egingo dute

Ibar Nagusien Etxeko kideek iragarri dutenez, lekualdatzearen eta eraikinaren eraistearen kontrako itxialdia egingo dute egunean, hilaren 17an. Protestaldia 19:00etan hasiko da, «hemen gelditzea (gaur egungo lokaletan) ez delako kapritxoa, beharrezana baizik», adierazi dutenez. Getxoko Udalak jakinarazi du bazkideek euren jarduerak egiten jarraitu ahal izango dutela gaur egungo eraikinaren beheko lokalean, «zentroa ixten ez den bitartean».



SOPELA | Oposizioak

Udalak hiru udaltzain-lanposturako deialdia egin du. Eskaerak ekainaren 12ra arte egin daitezke. Lehiaketa oposizio irekiaren bidez egingo da.

SOPELA | Txakurrak eta katuak adoptatu



Animaliak biltzeko zentroetan dauden maskotak adoptatzeko deia egin du Udalak.

LEIOA-BARRIKA | Ibilbide geologikoa

Berbaldun egitasmoak txangoa antolatu du Barrikako kostaldeko egitura geologikoak ezagutzeko. Zapatuan egingo dute, goizeko 10:00etatik hasita.

GETXO | Arrauna

Virginia Díaz Raspas elkarteko kideak arraun olinpikoko Munduko Kopan parte hartuko du ekainaren 1etik 3ra, Belgraden (Serbia).

URIBE KOSTA | Trafikoa

Artatza eta Ballonti lotzeko tunela egingo dute, itsasadarraren azpitik

Aurreikuspenen arabera, bide berria ezin izango da erabili 2027ra arte. Tunela multimodala izango da, hiru kilometroko luzera edukiko du eta egunean 53.000 ibilgailuk erabiliko dutela iragarri dute.



GETXO | Bizkaiko Bertsolari Txapelketa

Peio Ormazabal eta Eneko Abasolo irabazle Getxoko saio bietan

Maiatzaren 13an, domekan, egin ziren Bizkaiko Bertsolari Txapelketako Getxoko saioak, bata goizez eta bestea arratsalde. Eskualdeko ordezkariak, Josu Landetak, goizeko emanaldian jardun zuen, eta bosgarren lotu zen.



GETXO RUGBYKO EMAKUMEAK | Europako errugbi-finalen harira

«Kontua ez da nork utziko digun... nork geldiaraziko gaituen baizik. Guk ere jokutzen dugu»



ARANTZA GUTIERREZ PAZ | EHuko irakaslea

«Emakumeekiko indarkeria justifikatzen dutenei ahotsa eman zaie EiTbn»

370 itsas-milia

Alboko Esklerosi Amiotrofikoak (AEA) jotako gaixoen egoera ikusarazteko itsasaldia abiatuko dute maiatzaren 26an Bilbotik Finisterre lurmuturreraino. Iñaki Elorriaga getxoztarrak bultzatu du ekimena.

Sanisidroen hasiera, iruditan



Getxoko San Isidro jaietan bizitakoan bideo-laburpena, ikusbide.



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoen, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
 foru aldundia
 diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Producciones Serranoren ekimenez, Eddi Reader artistaren kontzertuaz gozatzeko sarrerak zozkatuko ditugu

Maiatzaren 27ko kontzertura hurreratzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, maiatzaren 22a (martitzena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Maiatzeko saria



Udako egun beroetarako bitxikeriak, Ad^ola online-dendari esker

Poltsa, belarritakoak, diru-zorroa eta betaurrekoak gordetzeko zozkatuko ditugu

Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguna) baino lehenago, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

4		1	3				8
					2	7	1
				8		2	
	7		2		1		4
			9				
6				5			1
		2		3			
	3	6			9		
		8				6	

		3	7			5	
8			1				7
2		5			8	3	
				4		9	7
	3			7			
	8	6					3
	2						4
	9						3
		7		2		6	

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

5	8	9	1	2	6	7	4	3
3	2	7	4	8	9	1	6	5
4	6	1	7	5	3	8	2	9
2	3	4	6	1	5	9	8	7
1	5	8	9	7	2	4	6	3
7	9	6	3	4	8	2	5	1
9	1	3	8	6	4	5	7	2
6	7	2	5	3	1	4	9	8
8	4	5	2	6	7	3	1	9

3	2	9	4	1	5	8	6	7
7	5	4	6	2	8	9	3	1
6	8	1	7	3	9	2	4	5
2	1	6	3	5	7	4	8	9
9	7	3	8	4	6	5	1	2
5	4	8	1	9	2	6	7	3
4	3	2	5	8	1	7	9	6
1	9	7	2	6	4	3	5	8
8	6	5	9	7	3	1	2	4

Hitza emanda

Hamaika


*Kasu batzutan gutxi,
 gehiago bestean,
 hamarraren ondotik
 zenbatzen hastean.
 Euskal telebista bat,
 besteen artean,
 hamaika adiera
 hitz bakar batean!*



KERMAN DIAZ FRANCO
 Urruña



Lehen/Orain **Plentziako portua** 1964



Erretratua **Manuel Rodríguez Novo** Musikari berezia

Hamabi urte daroatza musikan folk-munduko artisau honek. Huntzaren hostoa, intxaurra, tipula-azala... Edozeri atera diezaioke doinua Manu «Lino» berangoztarrak.

TESTUA: KERNAN SANTIAGO ALKORTA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Huntzaren edo limoiondoaren hostoa, intxaur-oskola, tipularen azala, ereinotzaren adar-tzatia, «iturri» mitikoak... Horiek guztiak musika-tresnak dira berangoztar honentzat. Manuel Rodríguez galizierazko «Manu o Hedras» ezizenez ezaguna da musika-munduan. Berangon, ordea, Manu «Lino» deitzen diote, aitzak zeukan tabernaren izena gogoratuz.

Gurasoen tabernan bertan etorri zitzaion lehen aukera musika-munduan sartzeko, orain dela hamabi urte. Txapelketak antolatzen zituzten han, eta bandakoek eurekaz jotzeko proposatu zioten behin, aurrez sekula musika jo ez bazuen ere. Orduetik hara-hona ibili da, Galizian lehenengo, Santurtzin ondoren, eta orain Berango Kantari ekimenean buru-belarri.

«Inoiz ez ditut zenbatu erabiltzen ditudan instrumentuak, baina jakin badakit nire gustukoena hostoa dela. Gehien ase

«Musika egiteko modu bitxi hau jendearekin partekatu behar da; dakigunok geuretzat gordez gero, galdu egingo da»

nauena da, eta jendearen arreta gehien deitzen duena», esan digu. «Folka jotzen dugunok familia txikia gara, denok ezagutzen dugu elkar. Behin Santurtzin jo nuen Kepa Junkerarekin, baita Biboko Alondegian ere, hark emandako *master class* batean. Entzuleen artean ikusi ninduenean hosto baten bila joateko agindu zidan», gogoratu du.

Azken boladan Berango Kantari proiektuan dabil. 40 bat lagun elkartzen dira hilean behin, kaleetan abesteko. Musika egiteko daukan modu bitxia herriari erakutsiz gozatzen duela dio: «Musika egiteko era hau jendearekin partekatu beharra dago; dakigunok geuretzat gordetzen badugu, galdu egingo da». ◀

